




www.caritasgi.org

Caritas Gipuzkoaren plan estrategikoa 2024-2027

Proiektu komun eta partekatua



MISIOA

IKUSPEGIA

BALOREAK

EREMU
ESTRATEGIKOAK


Caritas Gipuzkoak honako eremu estrategiko hauek identifikatu ditu 2024-2027 aldian bere ekintza aurrera eramateko. Eremu bakoitzerako helburuak zehaztu ditu.



GIZARTEA




**KRISTAU
ELKARTEA**



**HARRERA ETA
AKONPAINAMENDUA**



**BOLUNTARIO
SAREA**



ANTOLAKETA

Hasiera



GIZARTEA

Ondorengo hauek dira eremu honetako helburuak

- 1.1 Punta- puntako gizarte ekintza.
- 1.2 Gizarte sentsibilizatzea eta kontzientziatzea.
- 1.3 Eskubideen urraketa ikusaraztea.
- 1.4 Hirugarren sektoreko sareetan parte hartzea.
- 1.5 Presentzia eta komunikazioa.





KRISTAU ELKARTEA

Ondorengo hauek dira eremu honetako helburuak

2.1 Presentzia eliz eremuan.

2.2 Komunitate-animazioa sustatzea.

2.3 Sinodalitatea sustatzea.

2.4 Caritaseko parte-hartzaileen parte-hartzea

2.5 Parrokietako Caritasetako zerbitzu eta baliabideak indartzea.

eremu
estrategikoak



HARRERA ETA BIDE LAGUNTZA

Ondorengo hauek dira eremu honetako helburuak

3.1 Harrera eta akonpainamendu irizpideak ezartzea.

3.2 Parrokietako Caritasen arteko koordinazioa

3.3 Parrokietako Caritasen lana ezagutzera ematea

3.4 Sareko lana.

3.5 Harrera-eredu unibertsala ziurtatzea.

3.6 Lurraldearen eta zerbitzu espezializatuen arteko lotura indartzea.

3.7 Ebaluazioa eta jarraipena, bai programetan, bai zerbitzuetan.

3.8 Baliabideak optimizatzea bikoiztasunak saihestuz.

3.9 Enplegu-programa bakarra diseinatzea.

3.10 Miriam programa sendotzea.

3.11 Miriametik genero-ikuspegia lantzea.



BOLUNTARIO SAREA

Ondorengo hauek dira eremu honetako helburuak


4.1 Boluntariotza zaindu eta laguntzea.

4.2 Boluntariotzaren parte-hartzea sustatzea.

4.3 Boluntario berriak txertatzea.

4.4 Ekipo berri eta dinamikoak sustatzea.





ANTOLAKETA

Ondorengo hauek dira eremu honetako helburuak

- 5.1 Deszentralizazio ereduarekin jarraitu.
- 5.2 Jasangarritasun ekonomikoa bermatzea.
- 5.3 Giza baliabideen kudeaketa hobetzea.
- 5.4 Gertuko lidergoaren alde lan egitea.
- 5.5 Caritas proiektu amankomuna izan dadin lortzea.
- 5.6 Jasangarritasuna eta ingurumena sustatzea.
- 5.7 Integraziorako mekanismoak sortzea.
- 5.8 Pertsonen parte-hartzea sustatzea.
- 5.9 Hizkuntza-politikarako plana gauzatzea.
- 5.10 Elizbarrutiko beste zerbitzu batzuekin koordinatzea.

MISIOA

Caritas Gipuzkoa:

- Caritas Elizaren karitatearen adierazpena da.
- Giza garapen integrala eta pertsonen eta herrien akonpainamendua sustatzen ditu, bereziki ahulenena, motibazio ebanjelikotik abiatuta.
 - Kristau-komunitateen bidez.
 - Gizartea eraldatzeko eta mundu bidezkoagoa lortzeko.

[Hasiera](#)

IKUSPEGIA

Caritas Gipuzkoa, Jainkoaren maitasunaren hezurmamitze gisa :

- Itxaropenaren eta berri onaren adierazle izan nahi du pertsona eta herri pobretuenentzat, mundu bidezkoagoa, anaikorragoa eta solidarioagoa eraikitzeko lan eginez.

- Erreferentziazko erakundea izan nahi du Gipuzkoako gizarte eremuan, arrazoi hauek direla eta:

- Pertsonen eta gizarte inklusiboagoaren sustapenean eskuhartzea, guztion ongi izatea bilatuz.
- Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren kausak salatuko ditu.
- Herri behartsuenekiko elkartasuna adieraziko du.
- Elizaren gizarte-doktrinaren printzipioetatik abiatuta, Kristau Elkarteak Caritasen ekintzan protagonista izatera animatu, bultzatu eta laguntzeko konpromisoa hartzen du.

VALORES

Anaitasuna

Jainkoaren semeak eta alabak gara, anaitasun irekia eta unibertsala eraiki nahi dugu, pertsona bakoitza ezagutu, baloratu eta maitatu ahal izateko, pertsona horren gizarteratzea eta giza garapena sustatuz.

Pertsona da ardatza

Pertsona da gure ekintzaren ardatza. Pertsonaren duintasun ukaezina defendatzen dugu, bere gaitasunak aitortzen ditugu, bere ahalmenak bultzatzen ditugu eta bere garapen integrala sustatzen. Irizpideekin lan egiten dugu, baina beti pertsona bakoitzaren egoerari egokituz.

Zerbitzu emateko bokazioa eta doakotasuna

Doakotasunetik, zerbitzu eta entrega bokazioarekin aritzen gara, batezere egoera zaurgarrienen daudenen alboan.

Elkartasuna, justizia eta guztion ongizatea

Justiziaren eta pertsonetikiko eta herriekiko elkartasunaren alde lan egiten dugu, pertsonaren duintasun ukaezinetik eta ondasunen xede unibertsaletik abiatuta.

Parte-hartzea eta sinodalitatea

Erakunde irekia gara, eta talde-lana asustatzen dugu erakundearen esparru guztietan, Caritaseko kide garen pertsona guztion erantzukizunetik integrazioa eta kide izatearen sentimendua bultzatuz.

Gardentasuna eta zorrotasuna

Gardentasunez bideratzen dugu gure ekintza, eta modu etikoan erabiltzen ditugu gure baliabideak.

Hobetzeko espiritua

Gure ekintza etengabe hobetzeko eta berritzeko jarrera dugu, pertsonaren, komunitatearen eta gizarte osoaren onerako betiere.



Gizarte eremua
Helburu menua

GIZARTEA

1.1.Helburuaren
ekintzak

Estrategia

Komunikazioaren, sentsibilizazioaren eta eraginaren bidez, gizartea eraldatzeko lan egitea.

1.1.Helburua

Punta-puntako gizarte-ekintza baten alde lan egitea, errealitatea hobeto ezagutzen lagunduko diguna, zaurgarritasun egoera zorrotzenetan dauden pertsonen eragiten dieten egoerak saihesteko eta hobetzeko ekintzak azpimarratuz.



Gizarte eremua
Helburu menua

GIZARTEA

Ekintzak

1.1.1 Errealitatearen Behatokia sortzea, harreretara iristen diren egoerak jopuntutzat hartuaz, sortzen diren premia berriak aztertzeke.

1.1.2 FOESSA txostenetik abiatuta, txosten hori egin duten profesionalen laguntza izatea Gipuzkoko egoeraren datuak zehazteko.

1.1.3 Partehartzaileen ikuspegia kontutan izatea, errealitate berriak hobeto ezagutzeko.

1.1.4 Beste erakundeek zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen alde egiten duten lana ezagutzea.

1.1.5 Harreretara iristen diren errealitate berriei erantzuteko eta laguntzeko mekanismoak sortzea. Inor iristen ez den lekura iristea (subsidiariorotasuna).



Gizarte eremua
Helburu menua

GIZARTEA

1.2. Helburuaren
ekintzak

Estrategia

Komunikazioaren, sentsibilizazioaren eta eraginaren bidez, gizartea eraldatzeko lan egitea.

1.2. Helburua

Gizartearen sentsibilizazioa eta kontzientziazioa areagotzea, pobrezia-kausen eta gizarte-bazterketa egoeren berri emanez.



Gizarte eremua
Helburu menua

Ekintzak

1.2.1 Ekitaldietan, nazioarteko egun seinalatuetan eta abarretan parte hartzea.

1.2.2 Sentsibilizazio kanpainak egitea, non zaugarritasun egoeran dauden pertsonak parte hartzen duten.

1.2.3 - Komunikabideetan (prentsa, irratia, telebista, sare sozialak...) etengabe agertzea, gure ekimenen berri emanez, komunikazio maila desberdinak bereiziz (lurraldekoa, tokikoa, auzokoa...), egungo gizartetik hurbil dagoen hizkuntza egokiarekin.

1.2.4 - Caritaseko eragileak prestatzea eta laguntza ematea, gizartean sentsibilizazio ekintza eraginkorrak egin ditzate.

GIZARTEA



[Gizarte eremua](#)
[Helburu menua](#)

GIZARTEA

[1.3. Helburuaren ekintzak](#)

Estrategia

Komunikazioaren, sentsibilizazioaren eta eraginaren bidez, gizartea eraldatzeko lan egitea.

1.3. Helburua

Eskubideen urraketa ikusaraztea salaketa publikoaren bidez, administrazio publikoei beren erantzukizunak gauzatzeko eskatuz.



Ekintzak

1.3.1 Salaketarako eta eragin politikoko estrategia definitzea.

1.3.2 Salaketa publikoa sustatzea, komunikazio, sentsibilizazio, eta prestakuntza estrategiei gehituta.

1.3.3 Etxebizitza-eskubidean eta errolda kontratu gaietan ematen diren eskubide urraketak salatzea.

1.3.4 Salaketa artikuluak prentsan argitaratzea.

1.3.5 Salatu beharreko gaiak urtero finkatzea.



Gizarte eremua
Helburu menua

GIZARTEA

1.4. Herburuaren
ekintzak

Estrategia

Komunikazioaren, sentsibilizazioaren eta eraginaren bidez, gizartea eraldatzeko lan egitea.

1.4 Helburua

Hirugarren sektore sozialeko sareetan parte hartzen jarraitzea eta hezkuntza esparruko sareetan presentzia sustatzea.



Gizarte eremua
Helburu menu

GIZARTEA

Ekintzak

1.4.1 Zer saretan egon behar den lehenetsi, bai eta zer nork eta nola egon behar duen bertan antolatzea, boluntarioen ikuspegia kontuan hartuta.

1.4.2 Ekitaldi eta mahainguruetan parte hartzea.

1.4.3 Ikastetxeekin itunak gauzatzea, Caritas ezagutarazteko, unibertsitate-eremua eta/edo esperientzia-gelak lehenetsiz.

1.4.4 Ikastetxeek Caritasen proiektuetara bisitak egin ditzaten sustatzea.

1.4.5 Caritasen presentzia grafikoa (kartelak, weborria, etab.) unibertsitatean eta ikastetxeetan bultzatzea.

1.4.6 Pertsona-talde bat prestatzea ikastetxeetara joateko, saioak diseinatzea, inguruko boluntarioekin koordinatuta.



Gizarte eremua
Helburu menua

GIZARTEA

1.5. Helburuaren
ekintzak

Estrategia

Komunikazioaren, sentsibilizazioaren eta eraginaren bidez, gizartea eraldatzeko lan egitea.

1.5 Helburua

Caritasen ekintzaren presentzia eta komunikazioa indartzea.



Ekintzak

1.5.1 Komunikazio-plana egitea.

1.5.2 Sare sozialetan presentzia handitzea eta Caritas Gipuzkoaren webgunea eguneratua mantentzen jarraitzea.

1.5.3 Caritas Euskadirekin estrategia partekatuak biltzea, ekintza bateratuak definitzeko.

1.5.4 Boluntarioak komunikazio ekintzetan inplikatzea.

1.5.5 Caritasen ekintza kalean ikusaraztea, jarduera alternatiboen bidez.

1.5.6 Caritasen eta sozio-karitatezko pastoraltzaren presentzia bermatu "Arantzazu" aldizkarian.

1.5.7 Caritasen laguntza jaso duten pertsonen istorio pertsonalak sartzea eta partekatzea, gizarteak enpatia izan dezan eta haiekin bat egin dezan.

1.5.8 Caritasen komunikazio grafikoa kanpora zabaltzea, parroketatik haratago. Gure kartelak beste esparru batzuetan egotea.



[Kristau elkartea](#)
[Helburu menua](#)

KRISTAU ELKARTEA

[2.1.Helburuaren ekintzak](#)

Estrategia

Kristau elkartearen koordinazioa, komunitate animazioa eta dinamizazioa, soziokaritate arloan.

2.1. Helburua

Lurraldeko eliz eremu guztietan Caritas Gipuzkoaren presentzia areagotzea , modu koordinatuan eta partizipatiboan jardunez.



Kristau elkartea
Helburu menua

KRISTAU ELKARTEA

EKINTZAK

2.1.1 Aldian behin foroak eta topaketak antolatzea eliz eremu guztietan, Caritasen baliabideak eta proiektuak ezagutzera emateko.

2.1.2 Konsiliarioaren edo bailara laguntzailearen figura berrezartzea, artziprestalde eta bailaretan.

2.1.3 Caritasen presentzia indartzea egungo parrokia egituretan .

2.1.4 Parrokoen inplikazio handiagoa bilatzea, Parrokietako Caritasen jardunean parte har dezaten .

2.1.5 Topaketak Kristau elkartearen egungo errealitatera egokitzea.



[Kristau elkarte](#)
[Helburu menua](#)

KRISTAU ELKARTEA

[2.2. Helburuaren
ekintzak](#)

Estrategia

Kristau elkartearen koordinazioa, komunitate animazioa eta dinamizazioa, soziokaritate arloan.

2.2. Helburua

Komunitate animazioa, gizarte ekintza eta elkarlana sustatzea.



Kristau elkartea
Helburu menua

KRISTAU ELKARTEA

EKINTZAK

2.2.1 “Konsiliario-laguntzaile” sare bat sortzea, zonaldeko laguntzailearekin buruz buru lan egiteko.

2.2.2 Komunitatean egindako kanpainak eta ekintzak sustatzea Caritas ezagutzera emateko.

2.2.3 Giza mugikortasunari buruzko gaietan sareko lana sustatzea: hartu, babestu, sustatu eta integratu.

2.2.4 Kulturen arteko bizikidetza bultzatzea, mugikortasunean dauden pertsonak komunitateetan integratzen lagunduz, aniztasuna errespetatuz eta komunitatearen parte izatera gonbidatuz.

2.2.5 Zonaldean edo artziprestaldetan animazio komunitarioko ekipo txikiak ezartzea .

2.2.6 Parrokoen parte-hartzea areagotzea kanpaina eta ekintzetan .

2.2.7 - Zonaldeko laguntzailearen funtzioak indartzea.

2.2.8 - Komunitatean elkarguneak eta parte hartzeko guneak sortzea.



[Kristau elkarteak](#)
[Helburu menua](#)

KRISTAU ELKARTEA

[2.3. Helburuaren
ekintzak](#)

Estrategia

Kristau elkartearen koordinazioa, komunitate animazioa eta dinamizazioa, soziokaritate arloan.

2.3. Helburua

Caritasen barne-ekintzan sinodaltasuna sustatzea eta eliza hurbilagoa eta sinodalagoa eraikitzen jarraitzea.



Kristau elkarte
Helburu menua

KRISTAU ELKARTEA

EKINTZAK

2.3.1 Pertsona laikoek Kontsilioaren eta apaizaren erantzukizunak konpromisoz eta dedikazioz har ditzaten balioestea eta ahalbidetzea.

2.3.2 Sinodaltasunean prestakuntza.

2.3.3 Ospakizunetarako espazioak sortzea.



[Kristau elkartea](#)
[Helburu menua](#)

KRISTAU ELKARTEA

[2.4. Helburuaren ekintzak](#)

Estrategia

Kristau elkartearen koordinazioa, komunitate animazioa eta dinamizazioa, soziokaritate arloan.

2.4. Helburua

Caritasen parte hartzen dutenen parte-hartze aktiboa sustatzea eta areagotzea.



Kristau elkartea
Helburu menua

KRISTAU ELKARTEA

EKINTZAK

2.4.1 Caritaseko ekintzan parte hartzen duten pertsonen parte-hartze aktiboa sustatzeko espazioak sortzea.

2.4.2 Caritasen programetan parte hartzen duten pertsonen artean boluntarioritza sustatzea.

2.4.3 Prestakuntza-ekintzak egitea, parte-hartzaileen parte-hartzea sustatzeko.

2.4.4 Parte hartzaileen gogobetetze maila ebaluatzea.



[Kristau elkartea](#)
[Helburu menua](#)

KRISTAU ELKARTEA

[2.5. Helbururen](#)
[ekintzak](#)

Estrategia

Kristau elkartearen koordinazioa, komunitate animazioa eta dinamizazioa, soziokaritate arloan.

2.5. Helburua

Parrokietako Caritasen zerbitzuak eta baliabideak indartzea, Parrokietako Caritasetara jotzen duten pertsoneri arreta hobea emateko eta haien zaurgarritasuna saihesteko, kristau-komunitatea izanik Caritasen ekintzaren protagonista.



Kristau elkarte
Helburu menua

KRISTAU ELKARTEA

EKINTZAK

2.5.1 Parrokia guztietan parrokiako Caritas talde bat izatea, nahiz eta arreta parrokiartekoa izan.

2.5.2 Arlo komunitarioaren eta beste eragile batzuekiko (erakundeak, elkarteak, administrazioak...) harremana sustatzea.



Estrategia

Kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen arreta eta laguntza ematea, haien autonomia eta garapen integrala sustatzeko.

3.1. Helburua

Harrera eta akonpainamendu eredua finkatzea, pertsona bakoitzaren gaitasunen sustapenean eta garapenean oinarrituta.



Ekintzak

3.1.1 "Akonpainamendu eredua" batzordea abian jartzea.

3.1.2 Parrokietako Caritasen irizpideak gizarte ekintzaren ereduarekin bateratzea.

3.1.3 Harrera eta akonpainamendutano jarrera egokiak, akonpainamendu ereduan jaso..

3.1.4 "Akonpainamendu ereduaren" batzordeak proposatutako ekintzak hedatzea.



Estrategia

Kalteberatasun-egoeran dauden pertsoneri arreta eta laguntza ematea, haien autonomia eta garapen integrala sustatzeko.

3.2. Helburua

Parrokietako Caritasen Koordinazioa sustatzea, harrerak kudeatzeko irizpide komunak adostuz, bai eta antolaketaren, ekonomiaren eta informazioaren kudeaketaren arloan ere.



EKINTZAK

3.2.1 Parrokietako Caritasentzat komunikazio-guneak sortzea, irizpide eta interpretazio komunak eztabaidatzeko eta partekatzeko.

3.2.2 "Akonpainamendu eredua" batzordearen irizpideak helaraztea eta jakinaraztea.

3.2.3 Zonaldeko bilerak indartzea, irizpideren bat lantzeko gune izan daitezen; eskualde guztietan irizpide bera.

3.2.4 Hartutako irizpideak aldizka aztertzea eta ebaluatzea, eta aldaketak eta egokitzapenak egiteko prest egotea.

3.2.5 Arreta eta akonpainamendua hobetzeko Parrokietako Caritasek egindako esku-hartzeak, orohar, aztertzea.

3.2.6 - Digitalizatze lanarekin jarraitzea, informazioa partekatu ahal izateko.



Estrategia

Kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen arreta eta laguntza ematea, haien autonomia eta garapen integrala sustatzeko.

3.3. Helburua

Parrokietako Caritasetan zeharka egindako interbentzio lana ezagutzera ematea.



EKINTZAK

3.3.1 Saio eta mahai-ingurutan parte hartzea, parrokiaren eremuan zein kanpoan (herrian, auzoan, Pastoral Kontseiluan, etab.)

3.3.2 Memoretan aurkeztutako datuak tokiko herritarrei helaraztea, prentsa-oharren eta prentsaurrekoen bidez. Presentzia komunikabideetan. Tokiko memoria inguruko eragile sozial eta politiko nagusiei aurkeztea

3.3.3 Caritasen kanpainak eta jarduerak ezagutzera eman, parrokiatako taldeetako kideen eta parrokoen edo eliz komunitateko arduradunen inplikazioarekin.

3.3.4 Caritasek bailaraz bailara dituen baliabide-proiektuen gida egitea.

3.3.5 Parrokietako Caritasen memoriak egitea, jardueren datu esanguratsuenekin.



Estrategia

Kalteberatasun-egoeran dauden pertsoneri arreta eta laguntza ematea, haien autonomia eta garapen integrala sustatzeko.

3.4. Helburua

Administrazio publikoekin eta hirugarren sektoreko beste erakunde edo organismo batzuekin lankidetzan aritzea, eta sarean lan egitea, honako alderdi hauek zainduz:

- CARITAS GIPUZKOAREN MISIOAREKIN, IKUSPEGIAREKIN ETA BALIOEKIN bat datozen zerbitzu eta programetan parte hartzea.
- CARITAS GIPUZKOAK laguntzen dituen programa eta zerbitzuei balioa ematea, ez dadin izan erakundeek beren zerbitzuak kanporatzeko herreminta.
- Programa bakoitzaren autojasangarritasun ekonomikoa



EKINTZAK

3.4.1 Egungo egoitza ereduak aztertzea, erabilera libreko plazei tokia emateko aukera baloratzeko.

3.4.2 Administrazioak proposatutako "azkenetan azkenekoentzat" ibilbide osagarria sortzea, erakundearen misioa, ikuspegia eta balioak kontuan hartuta, non pertsonarekin lan egingo den.

3.4.3 - Boluntarioek proiektu horietan parte har dezaten sustatzea.

3.4.4 Proiektuen aurrekontuen jarraipena egitea, eta desbideratzeak badaude, zergaitiak aztertu eta konponbideak eman.

3.4.5 Sarean Sarearekin lanean jarraitzea, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko Legeari balioa emanaz, lankidetzaren eta klausula sozialen hedapenaren arloan.



Estrategia

Kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen arreta eta laguntza ematea, haien autonomia eta garapen integrala sustatzeko.

3.5. Helburua

Harrera eredu unibertsal, bizkor eta koordinatua ziurtatzea Gipuzkoako Caritaseko baliabide eta zerbitzu guztien artean, bereziki pertsona berari arreta ematen zaionean.



HARRERA ETA BIDE LAGUNTZA

EKINTZAK

3.5.1 Harrera, informazio eta bideratzegune zentralizatu gune bat sortzea pertsona guztientzat.

3.5.2 Harrera-zerbitzua mantentzea Parrokietako Caritas guztietan.



Estrategia

Kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen arreta eta laguntza ematea, haien autonomia eta garapen integrala sustatzeko.

3.6. Helburua

Lurraldeak gainerako zerbitzu espezializatuekin duen bi norabideko lotura eta koordinazioa indartzea.



EKINTZAK

3.6.1 Lurraldearen eta baliabide espezializatuen arteko koordinazioa hobetzea, erabili edo okupatu gabeko plaza, etxebizitza edo baliabiderik egon ez dadin.

3.6.2 - Kasuak koordinatzeko bilerak egitea etxerik gabekoen eta Lurraldearen artean.

3.6.3 FUTS-a egindako arreten informazioz elikatzea.

3.6.4 Jarraipenen eta akonpainamenduen koordinazioa eta elkarlana areagotzea.

3.6.5 - Etxerik gabekoen baliabideen okupazioari buruzko informazio eguneratua edukitzea, bai eta itxaron-zerrendan sartzeko eta kudeatzeko protokoloei buruzkoa ere, hala badagokio.

3.6.6 - Etxebizitzaren arazoari irtenbidea emateko alternatibak aztertzea, Parrokietako Caritasen, Caritasen, Elizbarrutien eta abarren dauden baliabideekin.



Estrategia

Kalteberatasun-egoeran dauden pertsoneri arreta eta laguntza ematea, haien autonomia eta garapen integrala sustatzeko.

3.7. Helburua

Zaurgarritasun egoeran dauden pertsoneri arreta eta laguntza ematea, haien autonomia eta garapen integrala sustatzeko



EKINTZAK

3.7.1 Caritasen programek parte-hartzaileen bizitzan eta ahalduntzean duten eragina neurtzeko eta ebaluatzeko adierazleak ezartzea, haien ikuspegia eta hezkuntza taldearen ikuspegia kontuan hartuta.

3.7.2 Baliabideetatik igaro diren parte-hartzaileen espedienteak aldian behin berrikustea eta ebaluatzea.



Estrategia

Kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen arreta eta laguntza ematea, haien autonomia eta garapen integrala sustatzeko.

3.8. Helburua

Baliabideak egokitzea, programen bikoiztasuna ekiditeko.



ACCIONES

3.8.1 ZUBIA programa lurraldera zabaltzea, Caritasen etxebizitza guztiei laguntza teknikoa emateko, parrokiakoak edo elizbarrutikoak izan, aparteko egoeretan zuzeneko akonpainamendua egiteko.

3.8.2 Miriam programa eta enplegu-programa Sarearekin koordinatzea, bikoiztasunak saihestuz.

3.8.3 Bultzada programa aztertu, ebaluatu eta, hala badagokio, birformulatu.



Estrategia

Kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen arreta eta laguntza ematea, haien autonomia eta garapen integrala sustatzeko.

3.9. Helburua

Enplegu-programa bakarra izatea, parte hartzen duten pertsonen enplegu-eta prestakuntza beharrei erantzuteko, non zerbitzuaren hurbiltasuna, informazioa eskuratzea eta Parrokietako Caritasekiko eta gainerako zerbitzu espezializatuekiko koordinazioa bermatuta egongo den.



EKINTZAK

3.9.1 Caritasen, Sarea eta Lurralderen arteako solaskide bat identifikatzea.

3.9.2 Lan-bitartekaritzako zerbitzua emateko enpleguagentzia sortzea baloratzea, parte-hartzaileak laneratzeko baliabidea izan dadin.

3.9.3 Egoera erregularizatuan dauden eta MIRIAM programaren parte diren emakumeei lan-aukera bat emateko jardutea.

3.9.4 Caritasen baliabideen bitartez, pertsonak erregularizazio-prozesuan akonpainatzea.

3.9.5 Lanbiderekin eta beste prestakuntza-erakunde eta gizarteratze eta laneratze-erakunde batzuekin zuzenean elkarlanean jarraitzea.



Estrategia

Kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen arreta eta laguntza ematea, haien autonomia eta garapen integrala sustatzeko.

3.10. Helburua

MIRIAM programa finkatzea, emakumeari akonpainatzen espezializatutako programa gisa.



HARRERA ETA BIDE LAGUNTZA

EKINTZAK

3.10.1 Miriam proiektua birdefinitzea, hainbat esku-hartze eremutan, emakumearen akonpainmentua eta prestakuntza ardatz hartuta.

3.10.2 Emakumeak akonpainatzea eta erremintak ematea, Parrokietako Caritasekin-Lurralderekin eta erakundearen gainerako proiektuekin harreman eta koordinazio estuan.

3.10.3 Miriam proiektua lurraldean presente egon dadin lanegitea.



Estrategia

Kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen arreta eta laguntza ematea, haien autonomia eta garapen integrala sustatzeko.

3.11. Helburua

MIRIAM proiektutik genero-ikuspegia zeharka eta aktiboki garatzeko aukera aztertzea, bai erakundearen kudeaketan, bai parte-hartzailekiko prozesuetan.



HARRERA ETA BIDE LAGUNTZA

EKINTZAK

3.11.1 Miriam proiektutik, Berdintasun Batzordearekin koordinatuta, genero-ikuspegia zeharka lantzea erakunde osoan, arreta berezia jarriz pertsonen harreran eta akonpainamenduan,



Estrategia

Boluntariotza indartzea, prestakuntzaren eta trebakuntzaren bitartez, eta boluntario berriak integratuz

4.1. helburua

Boluntarioak akonpainatzea eta zaintzea, Caritas Gipuzkoaren proiektu amankomunean eta nortasunean parte hartzea gauzatuz.



EKINTZAK

4.1.1 Caritasen nortasuna boluntarioekin lantzea.

4.1.2 Boluntarioentzako prestakuntza eta trebakuntza ekintzak egitea eta haietan parte hartzea erraztuko duten bideak aztertzea (deszentralizazioa).

4.1.3 Boluntarioen egungo harrera prozesua berrikustea eta eguneratzea.

4.1.4 Boluntarioekin komunikatzeko mekanismoak berrikustea eta egokitzea, profilak eta baliabide teknologikoen erabilera kontuan hartuta (eten digitala).

4.1.5 Boluntarioen bilerak edota topaguneak egutegian jartzea.

4.1.6 Dauden barneko eta kanpoko baliabideei, indarrean dauden laguntzei, eguneratutako araudiari eta abarri buruzko informazioa eguneratua mantentzea eta partekatzea.



Estrategia

Boluntariotza indartzea, prestakuntzaren eta trebakuntzaren bitartez, eta boluntario berriak integratuz

4.2. Helburua

Erakundearen espaziotan boluntarioen presentzia eta parte-hartzea sustatzea.



ACCIONES

4.2.1 Boluntarioek lan taldeetan parte har dezaten sustatzea.

4.2.2 Boluntarioek Batzordean eta Kontseiluan aktiboki parte hartzea bultzatzeko mekanismoak gauzatzea.

4.2.3 Boluntarioen artean zuzendaritza eta lidergo bokazioak sustatzea, erantzukizun funtzioak berengain har ditzaten.

4.2.4 Erantzukizuna duten boluntarioen profilaren funtzioak definitzea.



Estrategia

Boluntariotza indartzea, prestakuntzaren eta trebakuntzaren bitartez, eta boluntario berriak integratuz

4.3. Helburua

Boluntario berriak gehitzeko lan egitea, batez ere boluntario gazteak.



EKINTZAK

4.3.1 Boluntariotza modalitate berrietara irekiak egotea, Caritas Gipuzkoarekin elkarlanean aritu nahi duten pertsoneri harrera eginez, haiekin erakundearen nortasuna landuz eta profil bakoitzari egokitutako partaidetza ibilbideak diseinatuz.

4.3.2 - Boluntarioak erakartzeko kanpaina aktiboak egitea honako hauekin: erretiratzeko adinetik gertu dauden pertsonekin, Caritas Gipuzkoako parte-hartzaileekin, migratzaileekin, gazteekin...

4.3.3 Caritas Gaztea programaren aldeko apustua egiten jarraitzea, parte-hartzaileekin urtero topaketak egitea barne.

4.3.4 Komunikazio eta sentsibilizazio ekintza eta kanpainenetan Caritas Gipuzkoako boluntarioek egiten duten lana ikusaraztea.



Estrategia

Boluntariotza indartzea, prestakuntzaren eta trebakuntzaren bitartez, eta boluntario berriak integratuz

4.4. Helburua


Boluntario-talde irekiak eta dinamikoak sustatzea, aldaketaren beldur izan gabe.



EKINTZAK

4.4.1 Ebaluazio eta hobekuntza sistemak ezartzea, boluntario sarean berrikuntza sustatuz.

4.4.2 Lan-modu malguetara irekita egotea, taldeetan profil anitzak eta proposamen berriak dituzten pertsonak sartuz




Estrategia

Erakundearen jasangarritasuna bermatzea (ekonomia eta kudeaketa arloetan), kudeaketa eraginkor , garden eta partizipatibo baten bidez.

5.1 Helburua

Zerbitzuen deszentralizazio ereduarekin jarraitzea, lurraldean baliabide berriak sortzeko ekimenak eta eskaerak babestuz.



ACCIONES


5.1.1 Erakunde publikoekin hitzartu gabeko Elizbarrutiko Caritasen zerbitzuak, , lurraldera ateratzeko lan egitea: Miriam, PSH, aholkularitza juridikoa, Zubia,...

5.1.2 BIDELAGUNen eta parrokieta harreraren artean Lankidetzaz sustatzea.

5.1.3 Elizbarrutiko Caritasek lurraldetik sustatutako proiektuak bultzatu eta babestea.

5.1.4 Parrokietako Caritasetan erakundearen baliabideei buruzko informazio eguneratua mantentzea.

5.1.5 Lurraldean liberatutako langile kopurua gehitzeko aukera aztertzea.




Estrategia

Erakundearen jasangarritasuna bermatzea (ekonomia eta kudeaketa arloetan), kudeaketa eraginkor , garden eta partizipatibo baten bidez.

5.2 Helburua

Erakundearen jasangarritasun eta bideragarritasun ekonomikoa bermatzea.




EKINTZAK

5.2.1 Erakundearen ekonomia eta finantza egoeraren jarraipen erregularra egitea.

5.2.2 Erakundearen eta programa bakoitzaren urteko aurrekontuak egitea, aurrekontu-partiden betetzearen edo desbideratzearen jarraipena eginez, horien zergaitiak aztertuz eta ekintza zuzentzaileak proposatuz.

5.2.3 Estrategia malgua egitea, finantzaketa pribatuaren eta publikoaren arteko oreka bilatuz. Publikoaren eta pribatuaren arteko proportzioa gordetzea, autokudeaketa errazteko. Finantzaketa-iturri etikoak bilatzea.




5.2.4 Caritas Gipuzkoaren **Misioarekin, Ikuspegiarekin** eta **Balioekin** bat datorren finantzaketa jasangarria finkatzea.

5.2.5 Parrokietako edo zonaldeko Caritasetako diruzainekin bilera egitea, prestakuntza gisa, kontuak nola eraman behar diren jakiteko prestakuntza gisa edota arlo horretako kezkak argitzeko.

5.2.6 Sentsibilizazio eta prestakuntza ekintzak egitea, baliabideen kudeaketa optimoa bermatzeko.

5.2.7 Erakundearen informazio ekonomikoa aldian behin zabaltzea, dituen baliabideei buruz informazio gardena emanaz eta komunikatuz.




Estrategia

Erakundearen jasangarritasuna bermatzea (ekonomia eta kudeaketa arloetan), kudeaketa eraginkor , garden eta partizipatibo baten bidez.

5.3 Helburua

Giza baliabideen kudeaketa hobetzea.



EKINTZAK

5.3.1 Giza baliabideen arduradun bat izendatzeko aukera baloratzea.


5.3.2 - Erakundearen giza baliabideen politika ezartzea.

5.3.3 - Langileen karrera profesionala eta urteko prestakuntza plana diseinatzea.

5.3.4 - Lanpostu bakoitzaren profila definitzea (funtzioak eta zereginak) eta langileen lan-kargak berrikustea, baliabideak optimizatuz eta bikoiztasunak saihestuz.

5.3.5 - Lanaren balorazioa eta 360°-ko ebaluazioa egitea.

5.3.6 - Langile berriei harrera egiteko prozesua zehaztea.




5.3.7 Lanpostu estrategikoak edo erakundea hobeto ezagutzea eskatzen duten lanpostuak betetzeko estrategia ezartzea.

5.3.8 Lan legediak erakundearen barruan belaunaldi erreleboari aurre egiteko eskaintzen dituen aukerak aztertzea (erretiro aurreratuak, errelebo kontratua).

5.3.9 Erakundea osatzen duten pertsonak akonpainatzea eta zaintzea; egungo profil berriei erantzuteko tresnak eta baliabideak ematea.

5.3.10 Arloetako eta programetako arduradunei prestakuntza ematea, pertsonak kudeatzeko gaitasunak eskura ditzaten.




Estrategia

Erakundearen jasangarritasuna bermatzea (ekonomia eta kudeaketa arloetan), kudeaketa eraginkor , garden eta partizipatibo baten bidez.

Objetivo 5.4

Lurraldean eta programetan presentzia duen eta hurbiltasuna islatzen duen zuzendaritza taldearen lidergo estilo bat lantzea




EKINTZAK

5.4.1 Aldian behin bilera ibiltariak egitea, bai lurraldean, bai zerbitzu espezializatuetan.

5.4.2 Programen eta erakundearen egoera ekonomiko-finantzarioaren aldizkako jarraipena egitea.

5.4.3 Zuzendaritzak hartutako erabakiak argi eta eraginkortasunez helaraztea.

5.4.4 Zuzendaritza taldean, Lurraldearen eta boluntarioen ikuspegia emango duen pertsona bat sartzea.




Estrategia

Erakundearen jasangarritasuna bermatzea (ekonomia eta kudeaketa arloetan), kudeaketa eraginkor , garden eta partizipatibo baten bidez.

Objetivo 5.5

Caritas Gipuzkoa, osatzen duten pertsona guztien proiektu amankomuna eta partekatua izan dadin lortzea.



ACCIONES


5.5.1 Erakundearen eliz kultura eta nortasuna lantzea.

5.5.2 Espazio komunak (Ibilian, Boluntarioen Gala...) erabiltzea zentroek eta proiektuek beren esperientziak, jarduerak eta abar partekatzeko.

5.5.3 Ibilian ekitaldiaren formatua aldatzea.

5.5.4 Topagune informalak sortzea, erakundeko pertsonen artean elkarreragina gauzatzeko.

5.5.5 Proiektuen ikuspegi orokorra garatzea, elkar ezagutza, interkonexioa eta elkarlana sustatuz.




Estrategia

Erakundearen jasangarritasuna bermatzea (ekonomia eta kudeaketa arloetan), kudeaketa eraginkor , garden eta partizipatibo baten bidez.

Objetivo 5.6


Berrikuntzarekiko, eraldaketa digitalarekiko, jasangarritasunarekiko, ingurumenarekiko eta abarrekiko konpromisoa sustatzea.



EKINTZAK

5.6.1 Erakundeak garatutako ekintzetan (DBLO, berdintasuna, kalitatea, ingurumena...) aplikatu beharreko araudia betetzea dela zaintzea.

5.6.2 - Hirugarren sektoreko beste erakunde eta organismo batzuetan jarduera berritzaileen benchmarking-ekintzak egitea.




Estrategia

Erakundearen jasangarritasuna bermatzea (ekonomia eta kudeaketa arloetan), kudeaketa eraginkor , garden eta partizipatibo baten bidez.

5.7 Helburua


Caritas Gipuzkoaren ekintzan parte hartzen duten pertsonen integrazioa lortzeko tresnak eta mekanismoak sortzea eta ezartzea.



EKINTZAK

5.7.1 Erakundearen barruan sentsibilizazio-ekintzak egitea, Caritasen gizarte-ekintzan parte hartzen duten pertsonak errazago gehitu daitezzen.

5.7.2 Parte hartzaileak erakundera gehitzeko landu beharreko espazioak identifikatzea.




Estrategia

Erakundearen jasangarritasuna bermatzea (ekonomia eta kudeaketa arloetan), kudeaketa eraginkor , garden eta partizipatibo baten bidez.

5.8 Helburua

Caritasen parte hartzen duten pertsonen partehartze aktiboa sustatzea eta handitzea.




EKINTZAK

5.8.1 Parte-hartzaileak prestatzeko eta sentsibilizatzeko ekintzak egitea, erakundean aktiboki parte har dezaten sustatzeko.

5.8.2 Parte-hartzaileak boluntariorlan sartzeko lan egitea.

5.8.3 Parte hartzaileek egindako lana Caritasen komunikazioan ikusaraztea.





Estrategia

Erakundearen jasangarritasuna bermatzea (ekonomia eta kudeaketa arloetan), kudeaketa eraginkor , garden eta partizipatibo baten bidez.

Objetivo 5.9

Erakundearen euskararen erabilera normalizatzeko hizkuntza-politika plana egaritzea.



ANTOLAKETA

EKINTZAK


5.9.1 Erakundearen Euskara Plana definitzea.

5.9.2 Erakundearen Euskara Batzordea sortzea.

5.9.3 Prozesuan erakundeari lagun diezaioketen erakunde hornitzaileak aztertzea.

5.9.4 Caritas Gipuzkoaren hizkuntza-politika zehazteko eta ezartzeko indarrean dauden laguntza-programak aztertzea.

5.9.5 Euskara-ikastaroetara joateko erraztasunak ematea.




Estrategia

Erakundearen jasangarritasuna bermatzea (ekonomia eta kudeaketa arloetan), kudeaketa eraginkor , garden eta partizipatibo baten bidez.

5.10. Helburua

Elizbarrutiko beste erakunde eta zerbitzu batzuekin koordinatuta lan egitea.



EKINTZAK

5.10.1 Caritaseko Gipuzkoako komunikazio arloaren eta Elizbarrutikoaren artean koordinatuta lan egitea.

5.10.2 Modu koordinatuan lan egitea komunikazioan, Compliancen, prestakuntzan, nazioarteko lankidetzan eta abarretan, Elizbarrutiko Misioen eta Nazioarteko Lankidetzaren arduradunarekin bilera erregularrak eginez, aurrera eramane beharreko ekintzak definitzeko eta koordinatzeko.

5.10.3 Gizarte eta karitate pastoralaren arloan baterako ekintzen garapena sustatzea.

5.10.4 Elizbarrutiko beste erakunde batzuekin baterako ekintzak proposatu eta gauzatzea: etorkinen pastoralara, idazkaritza sozieala eta abar.

5.10.5 Helburu partekatuak dituzten koordinazio mahaietan parte hartzea.